# [Eusk/Cast]Orereta se movilizará el sábado por la libertad de los 4 jóvenes detenidos el 11 de marzo

OREREТAKO 4AK ASKATU :: 17/07/2017

Desde aquel 11 de marzo Asier, Endika y Ruben están en la prisión de Iruña bajo la falsa acusación de terrorismo a raíz de la manifestación "Errepresioari autodefentsa"

**Uztailak 22, manifestazioa**

Lau hilabete baina gehiago igaro dira gure herriko lau gazte Iruñean atxilotuak izan zirenetik, Euskal Herrian nahiz estatu mailan emandako errepresio kasuak salatzeko bete zen manifestazioan, “Errepresioari Autodefentsa” lelopean. Horietako hiru, Asier, Endika eta Ruben, behin-behineko espetxe zigorra betetzen ari dira Iruñeako kartzelan, terrorismoaren akusaziopean, eta edozein unetan Madrilera eraman ditzakete. Ezin dugu ahaztu ere laugarren atxilotua, adin txikikoa, aske geratu zela, baina baldintzatua.

Errepresio kasu hau estatuak erabiltzen dituen hainbat eta hainbat errepresio kasuren barnean ulertu behar dugu, klase interes batzuk defendatzeko burutzen duen errepresioa, hau da, kapitalismoa mantendu eta langile klasetik sortzen diren mugimendu ezberdinak zapaltzeko, arrisku bat izan daitezkeenak; gazteri borrokalariaren artean mugimendu hauek sortzen duten talka garbi geratzen da. Argi ikus dezakegu nola kasu hau muntai lotsagarri batean oinarritzen den, non bahituak dituzten inungo frogarik gabe eta terrorismoaren akusazioa leporatzen dieten, gazteri borrokalaria beldurtu eta kriminalizatzeko helburuarekin.

Argi daukagu ere errepresio kasu honek ez duela gelditu behar gazteri borrokalariaren eta orokorrean, gure klasearen borroka. Estatuak, errepresioaren bidez, helburu garbi bat dauka; arazo bat bihurtu daitekeen jende guztia garaitzea, borrokatzen duen jendea garaitzea, estatuak gu etxean geratzea nahi duelako, klase menderatzaileek miseriara bidaltzen gaituzten bitartean. Errepresioa gainditu behar da eta borrokatzen jarraitu, estatuak ez lortzeko bere helburua ezartzen dizkigun zigorren bidez.

Lehenago aipatu bezala, errepresio kasu hau ere kapitalismoaren ondorio zuzen bat bezala aztertu behar da; kapitalismoak, estatuaren bidez erabiltzen duen beste tresna bat bezala, bere interesak defendatu eta hilzorian dagoen sistema hau mantentzeko. Argi dago gure klasearen esplotazioan oinarritzen den sistemak jarraitzen duen bitartean, errepresio politikoa jasaten jarraituko dugula, eta beraz gure kideen askatasunaren aldeko borrokak kapitalismoaren aurkako borrokaren albotik igaro behar duela; esplotazioa jasaten jarraituz gero errepresioa jasaten jarraituko dugulako.

Amaitzeko, uztailaren 22an arratsaldeko 20:00tan Orereтako txosnagunetik abiatuko den manifestaziorako deialdia zabaldu nahi dugu, Orereтako lauak askatu lelopearekin. Argi daukagu espetxean dauden hiru kideen berehalako askatasuna berebizikoa dela oraintxe bertan, baina ezta ere ez dugu alde batera utziko auziperatua dagoen adin txikikoa, gure azken helburua lau auziperatuan askatasun osoa baita. Deialdi hau Orereтako herri osora

zabaldu nahi dugu, baita ere Euskal Herri, estatu mailan edo haratago kokatzen diren kolektibo, antolakunde, alderdi edota norbanakoei, elkartasunak ez baititu mugarik. Mobilizazio herrikoi indartsu batek bakarrik lortuko du gure kideak jasaten ari diren injustizia hauekin amaitzea. Iritsi da beraien askatasunarengatik borrokatzeko ordua.

**[Castellano]**

**22 de julio, manifestación**

Han pasado ya más de cuatro meses desde que cuatro jóvenes de nuestro pueblo fueran detenidos en Iruñea, en una manifestación que se realizó para denunciar los diferentes casos represivos tanto de Euskal Herria como del estado español, bajo el lema "Errepresioari Autodefentsa". Tres de ellos, Asier, Endika y Ruben, ingresaron en prisión preventiva, mientras que el cuarto detenido, menor de edad, se encuentra en libertad con cargos. Desde aquel 11 de marzo Asier, Endika y Ruben están en la prisión de Iruña bajo la falsa acusación de terrorismo, y con el peligro constante de que puedan ser trasladados a Madrid en cualquier momento, agravando aún más la situación que sufren.

Debemos de analizar este caso de represión como un caso represivo más de muchos que utiliza el estado para defender sus intereses de clase, para mantener el capitalismo, y para aplastar a diferentes movimientos que surjan desde la clase obrera y puedan suponer un peligro, teniendo esta su agudización entre la juventud combativa. Podemos ver como este caso se basa en un montaje infame donde les tienen encerrados sin pruebas y les acusan de terrorismo, con el único objetivo de intentar amedrentar y criminalizar a la juventud combativa, dándoles un castigo ejemplarizante.

Tenemos claro también que este tipo de represión no debe de frenar la lucha de la juventud combativa y las diferentes luchas que libre nuestra clase. El estado, mediante la represión, tiene como objetivo doblegar a toda esa gente que les pueda suponer un problema, a toda esa gente que lucha, porque el estado quiere que nos quedemos en nuestras casas, mientras ellos, mientras la clase dominante nos sigue llevando a la miseria. Debemos de sobreponernos y seguir luchando a pesar de sufrir la represión, para que el estado no consiga sus objetivos mediante los castigos que nos impone.

Como decimos, hay que analizar este caso de represión como una consecuencia directa del capitalismo; como una herramienta más que utiliza el capitalismo, a través del estado, para defender sus intereses y mantener este sistema decadente. Es obvio que mientras siga un sistema basado en la explotación de nuestra clase, seguiremos sufriendo la represión política, y que por lo tanto la lucha por la libertad de nuestros compañeros debe ir de la mano de la lucha contra el capitalismo y de las injusticias que deriven de este; porque mientras sigamos explotados seguiremos sufriendo la represión.

Para finalizar, hacemos un llamamiento a la manifestación que realizaremos el día 22 de julio a las 20:00 desde el txosnagune de Orereta (zona de txoznas), bajo el lema Oreretako

lauak askatu (Libertad para los cuatro de Orereta). Entendemos que la libertad inmediata de los tres compañeros encarcelados es lo más urgente ahora mismo, pero que tampoco abandonamos al menor encausado y que nuestro objetivo final es la total libertad de los cuatro encausados. Llamamos tanto al pueblo de Orereta que se movilice, como a colectivos, organizaciones, partidos e individualidades de Euskal Herria, del estado o de donde sea, pues la solidaridad no entiende de fronteras. Sólo una verdadera movilización popular conseguirá acabar con esta injusticia que están sufriendo nuestros compañeros. Es la hora de luchar por su libertad.

---

*https://eh.lahaine.org/eusk-cast-orereta-se-movilizara*